

# NOKAREN GALERA



**LARRUN #239**

# SEXISMOAK GUTXIETSITAKOAK FEMINISMOAK SUSPERTU AL DEZAKE?

EGILEA | **ONINTZA IRURETA AZKUNE**  
AZALA | **JOSEBA LARRATXE JOSEVISKY**  
ARGAZKIAK | **DANI BLANCO**

**E**zertarako balio ez duena, baserrikoa, gizon plantak egitekoa, zakarra, zatarra, mari mutilena, bortitza, harrotutakoan erabiltzekoa, baita bekatua ere. Nokari halako 'harribitxiak' atxiki zaizkio urte luzez. Emakume femenino eta aratza izan nahi zuenak ahalik eta urrutien bidaliko zuen hizkera.

Sexismoak gaur egunera arte iraun du eta noka ia hil da. Han eta hemen ordea, txanpinoiak ateratzen ari dira. Emakume gazteak, fe-

ministak ia denak, hika berreskuratu eta nokaz jabetzeaz hasi dira hizketan. Emakumeen ahaldunderako tresna garrantzitsua izan daitekeelakoan daude. Batean eta bestean ikastaroak antolatzen hasiak dira.

Galeraren arrazoiak bilatzen lagundu digute Arratia bailarako Bedia herriko Karlos Aretxabaleak, Azpeitiko Garbiñe Bereziartuak, Antzuolako Onintza Legorburuk eta Hernaniko Eli Pagolak. Susperraldi xumeaz ere aritu gara.

---

**LARRUN HILABETEKARI MONOGRAFIKOA** · Argiaren 2.633 zenbakiarekin banatua.

**JABEA:** KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L. **HELBIDEA:** ZIRKUITU IBILBIDEA, 15. PABILOIA 20160 LASARTE-ORIA **TELEFONOA:** (00 34) 943 37 15 45

**POSTA ELEKTRONIKOA:** LARRUN@ARGIA.EUS **INPRIMATEGIA:** ANTZA KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

2019ko otsailaren 24a

---

# Hika hiztunak euskaldun autentiko ote dira Antzuolan?

**O**nintza Legorburuk ama du hika talibana. Zale amorratua bera da, baina etxeko gainerakoak ez dira atzean geratu. Aitak ere hika egiten die Onintzari eta bere ahizpari, baita osaba-izebek ere. Gutxiena amandreak. Etxetik jaso arren, ahizpen artean zuka egiten zuten, baita kalean ere. Dua hiru urte hasi ziren bi ahizpak elkarrin noka egiten, amaren temak irabazi zuen. Lehengusina batu zitzaizen gero. Galderak etorri zaizkio Legorbururi berak nokarekin izan dituen bizipenak erreparatuta: "Antzuolan 50-60 urtetik gorako askok egiten dute hika. Nire adineko neskek zuka ari dira, talde mistoak zuka edo toka ari dira, eta mutilak toka. Mutilek ez dute etxean ikasi, kalean baizik. Guk berriz, etxean jaso dugu eta gure artean zuka ari gara. Generoak zer pisu dauka hor? Generoak zein eragin izan du nokaren galeran edo tokaren biziraupenean?"

Galderei erantzunak aurkitzeko asmoz hamabi elkarrizketa egin zituen, eta bi behaketa Antzuolako poteo ibilbidean. Tabernak aukeratu zituen 19-20 urtetik gorako gizonezkoak leku horietan biltzen direlako herrian. Gizonok umetan zuka aritzen dira, kalean behinik behin, eta Legorburuk jakin nahi zuen hizkuntza mudantza edo aldaketa noiz egiten duten. Aldaketa egiteko bi faktore aurkitu ditu. Batetik, nerabezaroen kuadrilla aldaketa egiten dute mutilek, hiru-lau adinekoak batera ibiltzen hasten dira. Bestetik, jakineko tabernan elkartzen dira mutilak, neskek ez.

18 urtetik 40ra artekoek topo egin dezakete taberna berean. Zukatik hikarako aldaketa helduarorako aldaketarako giltza bihurtzen da nolabait esatearren, gizentasuna sendotzeko balio du, nortasuna eraikitzen laguntzen du. Prestigioa du testuinguru horretan.

Ikuspegi orokorragoa osatu nahian, Antzuolan hika erabiltzen den edo erabili den bizitzako hiru eremu landu ditu Legorburuk.

Aisialdian tabernako erabilera aztertu du. Iruditu zitzaion mutilek hitanoa azkartasunarekin, bizitasunarekin, mugimenduarekin, lotzen zutela. Esaldi motzak, erantzun azkarrak... eta gorputz adierazpena. Tabernan emakumeak eta gizonak nola mugitzen diren behatu zuen. Gizonak toki gehiago hartzen zuten hitz egiterakoan eta gehiago mugitzen zuten gorputza. "Beraz, halako gorputz bati hobeto ote dator kio hika egitea?"

Lan munduan baserriko lanak eta industriako lana bereizi ditu. Baserriko lanetan generoen arteko bereizketaren adibide politikak ditu. 59 urteko emakumeak kontatu zion nola bere garaian Bergarara joaten zen etxeko gauzak saltzera eta nola erosleei zuka egiten zien, "nola egingo nion bada erosleari hika?". 90 urteko andreak ordea, bere aita azokara joaten zenekoak kontatu zizkion eta aitak izaten zituen tratuak hika erreproduzitzen zituen alabak, "zelan egingo zuen ba, besterik ez zekien eta?". Gizartean ditugun kortesiazko arauak hizketan ere eragiten dute. Bergarara saltzera zihoan andreak eroslearekin dis-



## Antzuolatik



### ONINTZA LEGORBURU LARREA

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAN  
GIZARTE LANGINTZAN GRADUATUA

Antzuolako Ugarte-Torre base-  
rrian jaio zen 1993an. Etxe as-  
kotan ez bezala, bere familiak  
hitanoa transmititu zien bi ahiz-  
pei. Hala ere, zuka aritzen ziren  
elkarren artean eta kalean. Ama-  
ren egoskorkeriaz lehenengo  
eta hautu politiko gisa ondoren,  
gaur egun noka eta toka ari da.  
Hainbat elkarrizketa eta behake-  
ta bidez "Antzuolan noketan: zer  
gertatzen ari da?" ikerlana egina  
du ikasketa feministak eta gene-  
rokoak masterrean.

tantzia markatu nahi zuen eta zuka erabiltzen zuen. Azokara zihoan aitak berriz, adiskidetasun harremana izan nahi zuen eta hika erabiltzen zuen. Kortesiak legeek, zein hitanoak dituen legeek, desberdin eragiten die emakumeei eta gizonei.

Herriko lantegietan diharduten gazteek adinaren arau soziala apurtu dute. Gehienek ez dakarte etxetik hitanoa, baina lantokian zaharrenek hika egiten dute. Beraz, gazteak ere hika egiten hasten dira eta zaharra goei berdin egiten diete.

Eskola giroari dagokionez, elkarriketatutako emakumeek esan diote ez dutela hitanoa erabili, eta gizonek berriz baietz, ikaskideekin egiten zutela. Emakumeak men egin du, baita eskolan ere. Hitanoa ez da hezkuntzan araua izan eta litekeena da emakumeak araua ez den horretatik aldentzea, hitanoa uztea, eta zuka erabiltzea. Gizonek berriz, errazago egingo zuten arauaren kontra, edo besterik gabe lehendik zerabilten hitanoari eutsiko zioten.

Solaskideei zuzenean galdetu zergatik galdu den noka eta hiru argudio nagusi jaso ditu Legorburuk:

Transmisioan etena: solaskide emakumezkoek adierazi diote ez zutela jaso etxetik. Legorbururi ez zaizkio kontuak ateratzen: “Mutil askok ere toka kalean ikasi dute, ez dute etxean jaso. Orain kalean ezin da noka ikasi, baina garai hartan zergatik ez zuten kalean ikasi?”. Jone Miren Hernandez antropologoak euskarari buruz ari denean egiten duen galdera kopia du egoera honetarako: Zer ematen die tokak gizakumeei? Eta hala dio Legorburuk: “Nortasuna garatzen laguntzen die, anaitasun harremanak eraikitzeke tresna itzelezkoa da. Nokak ez dauka halakorik”. Beraz, transmisioaren etenak ez du dena azaltzen.

Euskararen galera: hitanoaren galeran euskararen galerak zeresan handia duela, alegia, frankismo garaian adibidez. Baina Antzuolan,

beste herri batzuetan bezalaxe, emakumeek gehiago jo zuten erdarara. Emakumea da hizkuntzaz aldatzen dena, edo hikatik zugarako jauzia ematen duena. Boterearekin lotzen du Legorburuk hizkuntza aldaketa hori: “Botere gabeak prestigioa daukanari heltzen dio, edo gaztelaniari edo kasu honetan zukari”.

Eremu publiko eta pribatuaren arteko banaketa: emakumeak eremu pribatuaren sozializatu dira. Etxeko etena egon bada, noiz eta non hasten dira hika gazteak? Aisialdian eta lantokietan, eremu maskulinizatueta.



**HAUTU POLITIKOA DA LEGORBURURENTZAT NOKA BERRESKURATZEA. TOKA ERABILTZEN ERE HASIA DA. SINBOLIKOKI BADA ERE, HARREMANAK BERDINDU BEZALA EGITEN DIRELA OHARTU DA: NIK TOKA EGINGO DIAT, ETA HIK BI AUKERA DAUZKAK, EDO ZUKA EGIN EDO NOKA IKASI ETA EGIN.**

#### **HITANOA: BASERRIKOA, ZAKARRA...**

Hitanoaren gaineko uste eta balio ugari negatiboak izan dira. Solaskideek ondoko terminoekin lotu dute hitanoa: erabilgarritasun eza, zakartasuna, baserritartasuna, herri txikiko kontua... Hala dio Legorburuk: “Azken hiru terminoak ez dira ezkonitzen feminitatearekin. Nik *señorita* izan nahi badut, zer egingo dut? Hizkuntza tratamendu horretatik alden-du! Bestalde, maskulinitate hegemo-

nikoarekin ez dago kontraesanean”.

Balio eta uste positibotzat dituzte solaskideek konfiantza eta gertutasuna. Baina bitxia da etxean hitanoa jaso ez duten emakumeek esandakoa. Hau da, gurasoek hitanoa gertuegikotzat iritzita errespetu faltatzat zuten, eta elizgizonek ere neurri horretan hitz egiten zuten. Moralitatearekin talka egiten zuen horrek, eta emakumeek, hizkuntzaren bidez ere, moralitatea zaintzeko ardura zuten.

#### **GAZTEAK LABELDUN SENTITZEN DIRA**

Paradigma aldaketa baten zantzuak dira, toka ari diren bi mutilek eta noka ari diren bi neskek esandakoe-tatik tiraka antzemandakoak. Hitanoa berba egiteak nortasun bat ematen die gazteei, eta horrekin lotuta, autentikotasuna edo label moduko bat. Herriko nortasuna: “Antzuolakoa naiz eta hika egiten dut”. Euskal hiztun jatorra izatearekin lotzen dute, euskarari matrikula lortzea bezala.

#### **HITANOA EMAKUMEAK AHALDUNTZEKO TRESNA IZAN DAITEKE?**

Legorbururen ustez bai, eta ahalduntzeko bi modu aipatu ditu. Batetik, hizkuntza ohiturak aldatuz gero hiztun aktibo bihurtzen gara eta agentzia baten erakustaldia egiten dugu. Agentzia hori, emakumeei, urte askoan galarazi zaie. Gainera, emakumeak eremu zeharo maskulinizatuan sartzen direla dio, noka ikastea ere mundu maskulinoan sartzea dela iruditzen zaio, neska gazteek noka eta toka, biak galdu baitituzte. Bestetik, paralelismoa egin du euskaldun berriaren bizipenekin: lotsa galdu, boteretu, ikasi, erabiltzera ausartu...

#### **AMAGATIK HASI ZEN DENA... ORAIN FEMINISMOAK HAUSPOTU DU**

Hautu politikoa da Legorbururen-tzat noka berreskuratzea. Orain toka erabiltzen ere hasi dira hiru senideak. Sinbolikoki bada ere, harremanak berdindu bezala egiten direla



ohartu dira: nik toka egingo diat, eta hik bi aukera dauzkak, edo zuka egin edo noka ikasi eta egin. Talde mistotan gizonak emakumeen aurrean toka hitz egiten segitzen dute. Legorbururen ustez, lehenengo emakumeek egin behar dute ahalegina noka berreskuratzeko, eta gero bigarrena segitu beharko liokete gizonak: "Gizonak bi hizkuntza trataera erabiltzen dituzte, eta guk bakarra. Generoak pisu handia izan du horretan. Feminismoa ikaragarritzko tresna da berreskurapen horretarako eta galarazi zaigunaren aurka egiteko, eta mugimendu sozial potenteena feminismoa da Euskal Herrian, euskalgintzatik askoz harago dago".

“

**"MUTILEK EZ DUTE  
ETXEAN IKASI, KALEAN  
BAIZIK. GUK BERRIZ,  
ETXEAN JASO DUGU ETA  
GURE ARTEAN ZUKA  
ARI GARA. GENEROAK  
ZER PISU DAUKA HOR?  
GENEROAK ZEIN ERAGIN  
IZAN DU NOKAREN  
GALERAN EDO TOKAREN  
BIZIRAUPENEAN?"**

ONINTZA LEGORBURU

**HITANO NEUTROA?**

Hitanoak bi genero bereizten ditu, horretan oinarritzen da. Hori hala izanda, Legorburuk ulertzen du feminismo batzuentzat hitanoa balezkoa ez izatea, baina berak subjektu politiko moduan, emakumeen neurrian, hitanoaren berreskurapena aldarrikatu nahi du. Teorikoki ados dago hitano neutroa asmatzearekin, baina praktikan ez zaio egingarria iruditzen: "Hiztun gutxi gara eta hitanoa berreskuratzeko hitano neutroa sortu behar dugu? Hitanoaren berreskurapena kontzientzia osoz eginga eta behar-tua izango da, balia dezagun prozesu hori". ●

Onintza Legorburu, bere ahizpa eta lehengusua. Duela hiru urte hasi ziren noketan beraien artean.



# Seguru hitanoa osasuntsu dagoela Azpeitian?



Azpeititik



## GARBIÑE BEREZIARTUA ETXEBERRIA

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO  
IRAKASLEA ETA IKERLARIA

Azpeitian jaio zen 1977an. Nerabezaroan noka baztertu eta prestigioa zuen toka erabiltzearen alde egindakoa da. Urte batzuk geroago konturatu zen noka desagertzen ari zela genero diskriminazioaren ondorioz. Gaur egun noka egiten du kontzientziaz eta “Zenbateraino hika Azpeitian?” ikerketa lana egiten ari da Beñat Muguruzarekin batera. Donostiako Irakasle Eskolako Hizkuntza eta Literaturaren Didaktika Sailean dihardu lanean.

**A**zpeitia 10.000 biztanle-tik gorako Euskal Herriko herririk euskaldunena da. Euskara oso indartsu dago Urola bailarako herri horretan eta hitanoa ere osasuntsu dagoela esan daiteke. Hala ere, Garbiñe Bereziartua eta Beñat Muguruza ikerlari-iek osasun egoera bikaina erlati-bizatu nahiago dute. Hala, horrela galdetu diote euren buruari: “Zenbateraino hika Azpeitian?”. Nahi bezain osasuntsu ez dagoela irizita, azpeitiarrei galdetzea erabaki dute. Emaitez usteak baieztatu dizkiete: gazteak helduak baino gutxiago ari dira hika eta emakumeak gizonak baino gutxiago.

Soziolinguistika Klusterrak kale erabileraren metodologia erabili zuen Azpeitiko kaleetan hikaren erabilera neurtzeko, eta Bereziartua-Muguruza bikoteak bestelako metodoa landu du emaitzak jasotzeko, hau da, herritarrei galdera sorta egin die. 850 helduk hartu dute parte, %67 emakumeak. Ikasketxeetan dauden 12 eta 18 urte arteko gazte guztiak erantzun dituzte galderak, alegia, 397 gaztek.


Emaizta esanguratsuenak taula bidez azaldu ditugu 7. eta 8. orrialdeetan. Ikerlariak hainbat ondorio bildu dituzte:

- 1.** Aurrez espero zuten moduan, nesken eta mutilen artean alde izugarria dago bai egiten duten horretan, baita jasotzen duten horretan ere. Neskei gutxiago egiten zaie, eta neskek gutxiago egiten dute. Esanguratsuak dira hika hainbeste ez egiteko arrazoiak galdetutakoan gaz-

teek eman dituzten erantzunak. Nesken %43,3k dio ez dakiela nahi bezain ondo egiten, aldiz mutilen %12,3k dio gauza bera. Nesken %40,4 arraro sentitzen da; mutilen %12,9. Nesken %24,5ak dio lagunek ez dutela egiten; eta gauza bera dio mutilen %3,2k.

- 2.** Adinaren arabera ere, desberdintasunak handiak dira. Zenbat eta gazteago orduan eta gutxiago erabiliko du hika.
- 3.** Neskei toka egiteko joera handia dago. Mutilek toka egiten diete, baina neskek neskei ere toka egiten diete. Ikerlarien ustez, hausnarketa sakonagorako bidea ematen dute datu horiek.
- 4.** Egiten dutena baino gehiago egiteko desira dute. Batik bat emakumeek esan dute hori. Emakume gazteen %65,4k adierazi du desira hori eta gizon gazteen % 46,7k. Kontuan izan behar da gizon gazteek emakume gazteek baino gehiago hitz egiten dutela hika.

Emaizok epe luzeko ikerketaren lehen fasea amaitu dela adierazten dute. Ikusi dute bereziki noka dagoela osasun egoera kaskarrean eta bigarren fasean horren arrazoiak aztertu nahi dituzte. Udaberrian dira horretan hastekoak. Banakako elkarrizketak, talde eztabaidak eta kasu azterketak (hitanoa erabili ez duen herritarra hika egiten jarriko dute eta jarraipena egingo diote) egingo dituzte. Hirugarren fasean, informazio hori guztia bilduta, hitanoa berreskuratzeko Azpeitian zer egingo luketen aztertuko dute. ●



## HIKAREN ERABILERA AZPEITIAN

*Gurasoek seme-alabei*

## ALABARI

## SEMEARI

AMA HELDUEK % 22,1

AMA GAZTEEK % 4

% 24,7

% 11,1

AITA HELDUEK % 18,9

AITA GAZTEEK % 7,5

% 40,5

% 40,2

*Lagunekin*

## EMAKUMEZKOEI

## GIZONEZKOEI

EMAKUME HELDUEK % 44,9

EMAKUME GAZTEEK % 2,4

% 50,5

% 13

GIZON HELDUEK % 42,1

GIZON GAZTEEK % 16,1

% 93,2

% 87,1

*Erabilera okerra*

## TOKA

## EMAKUMEZKOEK

## GIZONEZKOEK

EMAKUME HELDUEI % 3,9

EMAKUME GAZTEEI % 23,1

% 9,3

% 16,7

## NOKA\*

## EMAKUMEZKOEK

## GIZONEZKOEK

GIZON HELDUEI % 4,4

GIZON GAZTEEI % 2,4


% 1,9

% 4,9

\* Emakumeek adierazi dute gizonen noka nahita egiten dietela, gizonen emakumei toka egiteko ohitura dutelako.



## Zergatik dago noka dagoen egoeran?



### SEXISMOA ARRAZOITZAT HARTUTA, AZPEITIAK EGINDAKO GOGOETAK

“Nire gurasoen garaian ezkondu ondoren txarto ikusia zegoen bikotearen artean hikaz egitea. Emakume ezkonduak bikotetik kanpo harremanak galdu egiten zituen”.

“Txikitatik gurasoek semei hika hitz egiteko ohitura dagoela iruditzen zait eta neskei ez, matxismoaren baitan dagoen irudipena daukat, beti ere hitanoa zakarra den ustea (ustela) badagoela eta neskak txukuna izan beharko lukeenez, hari zuka”.

“Historikoki emakumeak ‘baztertuago’ egon izanak toka gailentzea ekarri du”.

“Heteropatriarkatuan duela sustraia uste dut. Gizonen (gehiengoetan heterosexuak) arteko ‘kolegismoa’ indartzeko erabili ohi izan da. Ezingo nuke zehatz-mehatz azaldu, baina hortik datorrela ziur nago”.

“Genero rola haurtzarotik ezartzen zaizkigu eta hitanoaren erabilera beste adierazle bat da. Segurtasunezko, konfiantzazko eta erosotasunezko komunikazio kanala dela ulertuta, emakumezko atxikitzen zaizkien beldurrek, ‘gaizki ez egitearen exigentziak’... Baldintzartzen du erabilera”.

\* Ez jakiteagatik / Transmisioan etena egon delako / Sexismoagatik









# Arratian iratxoek baino ez dute egiten noketan



*Arratiatik*



## KARLOS ARETXABALETA ORMAETXEA

BIGARREN HEZKUNTZAKO IRAKASLEA

Ruandan jaio zen 1990ean. Gaur egun Arratia bailarako Bedia herriari bizi da. “Arratiako noketaren galera XX. mendean zehar” ikerlana egina du. Arratiako hainbat herri eta auzotako baserrietan ibili da noka hiztunen arrantzan. Bailara horretan nokaren galera handia izan da eta emakume nagusiak baino ez ditu aurkitu noka aritzen direnak. Magisteritzako eta Euskal Filologia-ko ikasketak eginak ditu.

**K**arlos Aretxabaletak Arratia bailaran nokak izandako erabilera galera aztertu du. Bizkaiko eskualde horretan, agerikoa da hitanoaren galera, eta are nabarmenagoa nokarena. Noiz eta zergatik galdu den jakin nahi zuen Aretxabaletak. Gaian sakontzen hasteko gogoeta paregabea egin digu berak: “Bailaran hitanoa dakiten emakumeak altxor modukoak dira, oso gutxi dira, eta gainera, kontua ez da noka egiten badakiten ala ez, baizik eta lotsatu egiten direla hizketarako gai direla onartzen. Gizonek hitanoz egiten dute, neuk ere egiten dut, eta ez gara lotsatzen. Zergatik lotsatzen dira emakumeak? Zergatik ez dute lasai berba egiten?”

Baserriz baserri ibili da Aretxabaleta Arratiako lurretan. Hizketaldi luzeetan, etxeko sukaldean, emakume zaharrek kontatu diote nola garai batean hika egiten zen, edo egiten zuten. Elkarrizketatzailerarekin konfiantza egindakoan, bat-batean han hasi da emakumea ondoan duen lagunarekin noketan. Gaueko iratxoak deitzen die Aretxabaletak emakumeoi, ikertzailea aurrean dutenean nokaren galera mintzatzen dira, baina beraiek hizkera horretan berba egiteko gai direla ezkutatuta. Berriz ere baserriz baserri hasi behar duela dio ikertzaileak, iratxoek bila.

Argi zuen Aretxabaletak nokaren galera baserri munduaren hausturarekin estu lotuta zegoela. Arratia bailaratik erruz alde egin zuten baserriarrek Bilboal-

dera lanera XIX. mende amaieran. Batez ere emakumeak joan ziren neskame, ahalik eta azkarren diru apurrak biltzeko. Ohikoagoa izan zen gizonak baserriko lanetan geratzea. Bilbon, testuinguru arrotzean, eta erdaldunean, emakumeek errazago jo zuten gaztelaniara, eta hika galtzera. Genero diskriminazioa larruazalean bizi zuen emakumeak gizartearen arauetatik kanpo ez geratzeko jokabideak azkarrago hartzen zituen: hitanoak baserriar egiten banau zuka egingo dut, eta euskaraz egiteak ere baserriar egiten banau, gaztelania hartuko dut hizkuntzatzat.

Alabaina, baserriar hirirako jauzia ez zen izan arrazoi bakarra noka galtzeko. 70 urtetik gorako emakumei galdetu die ea ondorengoei erakutsi dien eta erantzun ohikoak ondokoak izan dira: “Zer tarako? Zergatik? Gogorra da hika; ez du ezer ekartzen; baserri munduan ibiliz gero agian; gu betikoak gara, herrikoak, baina bestela...”. Baserriaroko beharbada balio zezakeen, baina han ere... Izan ere, oso ohikoa zen baserrietan semeek hika transmititzea eta alabei ez. Hika egiten zuten emakumeek galdetu die emakumei beraiei, eta batez ere Bedia herriko Ibarra auzokoez gogoratu dira: “Andratona fama zuten, emakume mugiduak, fuertetxoak ziren, Ibarra auzokoei beti eduki dute harrikada terriblerik”. Emakumeak fina izan behar zuten, femeninoa, eta hika baldartzat zuten. Aretxabaletak galderabat du horri lotuta: “Beti egon da



noka txarto ikusita baldarra zelako? Juan Manuel Etxebarria idazleak esan izan duen moduan gizonak gai dira hika ortuko porruetz hitz egiteko eta gaur egungo arazoez hitz egiteko, eta zergatik ez emakumeekin edo emakumeen artean?”.

Elizak bere aletxoak jarri zuen debeku bidean. Hitanoa gizonkeriarekin, gordinkeriarekin, ia bekatuarekin, lotzen zuen. Emakumearentzako rola oso markatuta zegoen eta eremu horretan hitanoak ez zuen lekurik. Elkarrizketatutako emakume batek baino gehiagok aipatu du, etxean gurasoek errieta egin izan ziela hikaz aritzeagatik, eta beste hainbeste abadeak. Aretxabaletak ez luke esango emakumeek hika erabiltzea tabua zenik, baina estigma zuen.

Izaera sendoko emakumeek, oso gutxi batzuek, mantendu dute hika eta erabileraren alde zilegitasunetik hitz egiten dute, “zergatik ez dut bada noka eta toka hitz egingo?”. Haiek erabiltzeak ez du esan nahi ordea ondorengoei irakatsi dietenik, ia inork ez du halakorik egin. Kon-

fiantzan oinarrituta hikaz aritzen diren ahizpak aurkitu ditu Aretxabaletak eta naturaltasunez egiten

“

**“HISTORIA LABURRA  
EZAGUTUKO BAGENU  
ETA JAKIN ZERGATIK  
GALDU DUGUN, JAKIN  
GIZARTE PATRIARKALAK  
BULTZATUTA GALDU  
DUGULA, BEHARBADA,  
BERRESKURATZEKO  
AHALEGINA  
EGINGO GENUKE”**

**KARLOS ARETXABALETA**

duten itxura eman dute. Ikertzaileak galdera prest du, ordea: “Zuen artean egiten duzue konfiantzan, eta

beste inorekin ez duzue konfiantzarik hika egiteko?”. Oso harreman mugatutan ageri da noka jo atea baserri batean, jo bestean.

#### **GAZTEEK HELDUKO DIOTE?**

Aretxabaletak ezagutzen dituen neska gazteek hitanoa ez dute nortasuna erakusteko bide moduan ikusten, ez da dohain bat haientzat, gizonak egiten duten kontutzat dute. Ikertzailearen ustez, bi aukera daude, edo baztertu edo zeure egin. “Historia laburra ezagutuko bagenu eta jakin zergatik galdu dugun, jakin gizarte patriarkalak bultzatuta galdu dugula, beharbada, berreskuratzeko ahalegina egingo genuke”. Entzun du 50-60 urte inguruko emakumeek ikastarotxo egin nahi dutela, belarriz dakitena erabiltzeko intentziaz. Ez baitute jarrera bera hitanoaz Aretxabaletak elkarrizketatu dituen 80 urtetik gorako emakumeek eta 50-60 ingurukoek. Zaharrentzat hitanoak ez du baliorik, eta gazteagoek berriz, ez erabili ezta transmititu ez badute ere, galeraren kontzientzia badute. ●









HIKA BALDARTZAT, OSO HERRIKOTZAT JO IZAN DA, IZATEKOTAN ERE BASERRI GIROAN ERABILTZEKOA. ORAIN BASERRIAK EZ DU HALAKO KONNOTAZIO EZKORRIK BAINA HIKA HIZTUNAK BASERRIETAN ERE URRI DIRA.



# Feminista gazteen ale xumea, Hernanin



Hernanitik



## ELI PAGOLA APEZETXEA

BERTSOLARIA ETA ENERGIA  
BERRITZAGARRIETAKO GRADUATUA

Hernaniko Ereñotzu auzoan jaioa da 1995ean. 18 urterekin hasi zen hika hitz egiten, ordura arte entzuna baino ez zuen hizkeran, alegia. Kontzientzia feministatik eusten dio hikari, eta batez ere nokari. Lagunartean aritzeaz gain, bertsolariekin ere ari da hizkuntza ohiturak aldatzen, eta bertsotan ere probatua da. Hernaniko bertso eskolako irakaslea da 2011. urteaz geroztik. Gipuzkoako Bertsozale Elkarteko hezkuntza arautuko irakaslea izan da 2017-2018 ikasturtean.

**E**li Pagolak eta bere inguruko lagunek bazekiten Hernaniko Udalean norbaitek egina zuela hitanoa irakasteko proposamena. Ez zen ordea, abian jartzen. Ikastaroa atera bitartean beraiek ahalegintxoak egitea erabaki zuten. 30 urte bueltako emakumeak ziren. Hika, eta batez ere noka, berreskuratu nahi zuten. Gehienak mugimendu feministatik zetozen. Ia hutsetik hasi ziren ikasten hitanoa. Dena dela, ikastaroan emakume helduak batu zitzaizkien, hitz egiten bazekitenak, baina eguneroko hizkera ez zutela izan nabari zutenak. 4-5 eguneko saioak egin zituzten, gramatikari berebiziko garrantzia eman gabe, saio dinamiakoak antolatuta.

### ZERGATIK HASI ZIREN HIKA BERRESKURATZEN?

Ikastaroan ez zuten maila ideologikoan landu hitanoaren erabileira. Alabaina, Eli Pagolak egina du hausnarketa gai honen inguruan: “Gogoan dut nola Onintza Legorburuk kontatu zuen [*Hitanoa eta generoa: aberastasuna ala sexismoa?* 2018ko Jardunaldiak, Udako Ikastaroak, EHU] Antzuolan mutilentzat toka aritzea label moduko bat zela. Gure interesa ez zen hori, baizik eta hizkuntza forma hori gureganatzea, gurea ere bada eta. Hizkuntzak generoa markatzeak horixe du ona, markatzen duela, eta nokaren bidez lehen lerroan jartzen duzu emakumea”. Pagola bertsolaria denez, ahozko jardun mota hori etortzen zaio adibide. Bertsolariak buruan daukan pertsona emakumezkoa izan daiteke, baina generoa ez badu markatzen, hartzailak gizonezkoztat har dezake. Noka tresna erabilgarria iruditzen zaio, emakumea azpimarratzeko aukera ematen duelako.

### NOKA INDARTU? GENEROAK BEREIZI?

Feminismo batzuek bi sexuak eta bi generoak banatzearen aurkako diskurtsoa landu dute. Nola uler daiteke feministak nokaren berreskurapenean aritzea? Pagolak dio dagoeneko eztabaida sortu dela: “Ikusi behar dugu ea hika baliogarria zaigun, ea hitano neutroa sortu behar dugun. Jakina, gaur egungo erronkei erantzun behar die hita-



noak, bestela berriz galduko da, eta agian galdu behar du!". Mugimendu feministaren zati batek erabiltzen duen emakume\* kontzeptua ekarri du gogora Pagolak. Asterisko horrek, emakumez gain, heteropatriarkatuak zapalduko beste giza taldeak ere barnebiltzen ditu. Noka emakumeentzako eta baztertutako beste giza taldeentzako hizkera izan daitekeela proposatu du Pagolak: "Hika egiterakoan adinaren arau soziala zabaldu den bezala, gene-

roarena ere lausotu edo birdefinitu beharko da".

Noka berreskuratzeko ahalegin xumeak badira hainbat herritan, aldiz, hizkera neutroaren eztabaida oso berria da. Hernaniko bertso-lariak aztertzeke gaien zerrendan idaztea proposatu du.

### **KALEAN ZAILDUA**

Belaunaldi bereko askok bezala ez du etxean hitz egin hika Pagolak. Entzun bai, etxean eta kalean. Batik

bat toka. Belarritz ikasia, mingainera ekartzen saiatu da 18 urteez geroztik. Hala erabakita, lagun batzuekin hasi zen noketan, karreran ere aurkitu zuen norekin egin. Hala ere, bere egunerokoan hikak pisu gutxi duela aitortu du, are gutxiago nokak, baina inoiz aritu dena baino gehiago egiten du hika. Bertsolariekin, esate baterako, zuka hasitako hainbat harreman hikara ekarri ditu. Hitz eginez ikasi du hitanoa, ez du gramatika libururik gau-mahaian. ●





LIBURUA  
SALGAI!  
14€

# BERDEA DA MORE BERRIA

**BIZKAIKO EGOITZETAKO  
GREBALARIEN TESTIGANTZAK**

*Onintza Irureta Azkune*

